

MARKINAN EMILIANOREN MUSIKA AKADEMIA

Aita Emilianoren bizitza eta nortasuna aztertuz, garbi ikusten dugu musikari zion maitasuna, eta hori bere ekintza pertsonalean erakusten zuen batez ere, musika-lanak sortuz eta herrian, Markinan, musika eta bereziki txistua bultzatuz.

Haren bizitzan aipatu dugu, gazte txistularien taldea sortu zuela; geroago, 1967an, hil zen urte berean, neskeen taldea sortu zuen. Baina herriarentzat hain pozgarri ziren talde horiek sortu aurretik, lan asko egin behar izan zuen musika-eskola sortzen, umeak eta gazteak musika-giroan hezteko.

Komentuko nahiz herriko musika-mugimenduaren eragilea zen Aita Emilianok musika-akademia jarri zuen abian. Akademia honek 1956tik 1963 arte iraun zuen, Aita Emilianok zuen koaderno batean ageri diren ikasle, nota eta ordianketa zerrendaren arabera¹. Geroko urteetan baliteke beste era batera jarraitu izatea...

Koaderno interesgarri honetan ikasleen izenak, eskola-egunak, urteroko ibilaldiaren gorabeherak eta beste zertzelada batzuk agertzen dira.

Eskolak, ikasturtearen ohiko epe barruan, urritik ekainera, ematen ziren. 1956-1957 ikasturtean 13 ikasle izan ziren; ondo-

¹ MKA, A-I-265, *Academia de Música de PP. Carmelitas Descalzos de Marquina, 1956 [1-1963]*.

J. M. + L. 7.

Academia

de

Música

de

St. Carmelitas Descalzas

de

Marquina



- 1955 -

rengo urteetan, berriz, 15, 13, 20, 17, 20, 21, 11... Hilero lau aldiz egiten zen ebaluazioa ikasleentzat. Ikasle bakoitzak hilero ordaintzen zuena ere badator koaderno horretan: lehenengo urtean, ikasle bakoitzeko 15 pta.; ondorengo urteetan 25. Baina pertsona helduei eta gazteei 150 pta. kobratzen zitzaien.

Egindako gastu batzuen kontua ere ematen da koadernoan: irrati, diskogailu, disko askoren erosketa, etab., guztira 14725 pta.

Inprimaki bat zegoen ikasleen notak eta kuotak jartzeko eta hau zuzendariak eta ikaslearen aitak sinatu behar zuten.

Ikasturtearen amaierako ibilaldirako gehiagok ematen zuten izena, baina horiek ordaindu beharrekoa ere gehiago izaten zen. Esaterako, hona hemen 1962ko ibilaldiko xehetasunak: autobusa 1500 pta. izan zen, ibilaldi honetako defizita 72 pezetakoa. Hiru karmeldar joan ziren (Emiliano, Miguel Mari eta Isaias); ibilbide hau egin zuten: Markina, Elgoibar, Bergara, Oñati, Arantzazu, Arrasate, Elorrio, Markina.

1960-1961eko ikasturtean Santa Ageda bezperan batutako dirua ere agertzen da, 715 pta., diru hori ziur asko ikasturtearen amaieran egiten zen ibilaldirako izango zen. Eta 1961-1962ko ikasturtean Santa Agedako kantuekin 1027 pta. bildu zituzten.

Eman ditzagun, adibidez, 1958-1959ko ikasturteko ikasleen izenak: 1. Jose Luis Ugarte, 2. Jesus Maria Ugarte, 3. Anjel Maria Arriola, 4. Jose Liborio Ugarte, 5. Migel Anjel Ibarzabal, 6. Felix Pertika, 7. Txomintxu Grande, 8. Jose Ramon Larrinaga, 9. Jesus Mari Bengoa, 10. Jesus Mari Goikoetxea, 11. Juan Luis Goikoetxea, 12. Joakim Txurruka, 13. Jon Mirena Aginaga, 14. Alfredo Sada, 15. Sabin Foruria, 16. Koldo Aginaga, 17. Jose Luis Oliver. Gainerako hiru hauek zenbakirik gabe agertzen dira: Loli Aginaga, M. Karmen Arriola eta M. Tere Barinaga; hiru hauen laukitxoetan ez da notarik agertzen,

1937-38	1938-39			
	Arzakta	Arzakta	Arzakta	Arzakta
1937-38	35	35	35	35
1938-39	35	35	35	35
1939-40	35	35	35	35
1940-41	35	35	35	35
1941-42	35	35	35	35
1942-43	35	35	35	35
1943-44	35	35	35	35
1944-45	35	35	35	35
1945-46	35	35	35	35
1946-47	35	35	35	35
1947-48	35	35	35	35
1948-49	35	35	35	35
1949-50	35	35	35	35
1950-51	35	35	35	35
1951-52	35	35	35	35
1952-53	35	35	35	35
1953-54	35	35	35	35
1954-55	35	35	35	35
1955-56	35	35	35	35
1956-57	35	35	35	35
1957-58	35	35	35	35
1958-59	35	35	35	35
1959-60	35	35	35	35
1960-61	35	35	35	35
1961-62	35	35	35	35
1962-63	35	35	35	35
1963-64	35	35	35	35
1964-65	35	35	35	35
1965-66	35	35	35	35
1966-67	35	35	35	35
1967-68	35	35	35	35
1968-69	35	35	35	35
1969-70	35	35	35	35
1970-71	35	35	35	35
1971-72	35	35	35	35
1972-73	35	35	35	35
1973-74	35	35	35	35
1974-75	35	35	35	35
1975-76	35	35	35	35
1976-77	35	35	35	35
1977-78	35	35	35	35
1978-79	35	35	35	35
1979-80	35	35	35	35
1980-81	35	35	35	35
1981-82	35	35	35	35
1982-83	35	35	35	35
1983-84	35	35	35	35
1984-85	35	35	35	35
1985-86	35	35	35	35
1986-87	35	35	35	35
1987-88	35	35	35	35
1988-89	35	35	35	35
1989-90	35	35	35	35
1990-91	35	35	35	35
1991-92	35	35	35	35
1992-93	35	35	35	35
1993-94	35	35	35	35
1994-95	35	35	35	35
1995-96	35	35	35	35
1996-97	35	35	35	35
1997-98	35	35	35	35
1998-99	35	35	35	35
1999-00	35	35	35	35
2000-01	35	35	35	35
2001-02	35	35	35	35
2002-03	35	35	35	35
2003-04	35	35	35	35
2004-05	35	35	35	35
2005-06	35	35	35	35
2006-07	35	35	35	35
2007-08	35	35	35	35
2008-09	35	35	35	35
2009-10	35	35	35	35
2010-11	35	35	35	35
2011-12	35	35	35	35
2012-13	35	35	35	35
2013-14	35	35	35	35
2014-15	35	35	35	35
2015-16	35	35	35	35
2016-17	35	35	35	35
2017-18	35	35	35	35
2018-19	35	35	35	35
2019-20	35	35	35	35
2020-21	35	35	35	35
2021-22	35	35	35	35
2022-23	35	35	35	35
2023-24	35	35	35	35
2024-25	35	35	35	35
2025-26	35	35	35	35
2026-27	35	35	35	35
2027-28	35	35	35	35
2028-29	35	35	35	35
2029-30	35	35	35	35
2030-31	35	35	35	35
2031-32	35	35	35	35
2032-33	35	35	35	35
2033-34	35	35	35	35
2034-35	35	35	35	35
2035-36	35	35	35	35
2036-37	35	35	35	35
2037-38	35	35	35	35
2038-39	35	35	35	35
2039-40	35	35	35	35
2040-41	35	35	35	35
2041-42	35	35	35	35
2042-43	35	35	35	35
2043-44	35	35	35	35
2044-45	35	35	35	35
2045-46	35	35	35	35
2046-47	35	35	35	35
2047-48	35	35	35	35
2048-49	35	35	35	35
2049-50	35	35	35	35
2050-51	35	35	35	35

baina bai pagatzen zuten kuota, umeena baino askoz handiagoa zena.

1963an, guztia Karmengo komentuaren gain eta, zehazki, A. Emilianoren gain utzi gabe, udalak ere Akademia honetan esku hartu behar zuelako ideia nagusitu zen. Aita Migel Mariak, komunitateko nagusiak, Udalarari musikako akademia berriaren aribide-proiektua eta haren inguruko xehetasunak agertu zizkion.

1. El Director de la Academia será el P. Emiliano del Niño Jesús, Organista de la Comunidad, supliéndole en caso de necesidad otro Padre de la misma.
2. Será necesario que se reúnan al menos 10 alumnos para el comienzo de su funcionamiento. Los niños a ingresar convendrá que sean de una misma edad poco más o menos, para no entorpecer la buena marcha de la Academia.
3. Cada alumno de la Academia deberá hacerse con un ejemplar del Método de solfeo que se señale, corriendo su coste a cuenta de los mismos o del Ilmo. Ayuntamiento.
4. El curso musical comprenderá desde el 1º de octubre hasta San Juan- 24 de junio – incluidos los exámenes.
5. La clase ordinaria será de 12 hasta 12,45.
6. Serán días de vacación: a) los jueves; b) los días de vacación escolar; c) las fiestas clásicas carmelitanas.
7. La Comunidad percibirá del Ilmo. Ayuntamiento la asignación anual de 7.000 ptas.
8. La Comunidad queda en libertad de poder asignar a cada alumno un pequeña cuota mensual de 25 ptas. Lo cual juzga además necesario para que las familias obliguen a sus niños a la asistencia diaria a la Academia.
9. Los alumnos de la Academia, cuya conducta será satisfactoria, tendrán derecho una vez al año a una excursión

A. EMILIANO ETA ANSOLATARRAK

A. Emilianok adiskide min-minak zituen herrian. Beharbada, ez asko, baina bai onak. Txistulariak, musikariak, kantariak maite zituen eta hauek ere bai bera. Familia batzuetan etxe-etxeko zen, esaterako, Ansola txistularien familietan. Elkarrekin biltzen zituzten loturak asko izan zitezkeen, baina batez ere musika eta txistua. Lurralde ere hurbilekoak ziren, ia auzokoak: A. Emiliano Leintz haranekoa eta Ansolatarrak Deba haranekoa.

Tamalez, Ansola anaietako inor ez da bizi. Haien bi arreba, seme-alabak eta ilobak bai. Haien iritzi eta testigantzak estimagarriak izango ziren, bada, *Karmel* aldizkariaren ale berezi honetan... Jose Antonio Ansolak, Joserren semeak, adierazi dizkiugu bere oroitzapenak A. Emilianoren eta Ansolatarren arteko harremanaz. Lan honetan tartekatuko ditugu. Izan ere, testigantza baliotsua eta barru-barrukoa da; bere-berea, esango genuke. A. Emilianoren paperen artean agertu dira Felix Ansolak haren omenez egindako idazkitxo bat eta bertso batzuk ere.

Bidezko da, labur-labur bada ere, Ansola anaia txistularien jatorriaz eta bizitzaz zerbait esatea. *Karmel* aldizkariaren 1977ko 3. eta 4. aleetan Ion Arteagak Felix Ansolari egindako elkarrizketatik hartu ditut ondorengo hainbat zertzelada.

Ansola txistulariek 200 urteko txistulari-katea osatzen dute. Ignazio da "txanbolin" anaia hauen lehen kate begia.